

Zalantza ikara bihurtzen denean

'HIL ALA BIZI'

Izenburua. 'Hil ala bizi'.
Jatorrizko izenburua. 'The Boyfriend'.
Egilea. R. L. Stine. Itzultzailea. Itziar Otegi.
Argitaratze urtea. 2007.
Argitaletxea. Elkar (IZU TAUPADAK bilduma).

INMA ERREA

BATZUEK diotenez, helduen literaturan bere aberkide Stephen King nola, hala dabil Robert Lawrence Stine idazle estatubatuarra (Columbus, Ohio, 1943) gazteen literaturaren esparruan. Eta, alafede, liburu-salmenta erraldolari dagokionez, behinik behin, hala da: R. L. Stinerrek gazteei zuzenduta idatzitako beldurrezko nobelak

hogeita zortzi hizkuntzetara itzultzen dira –besteak beste, euskarara–, halako moldez non 300 miloi ale omen ditu salduak munduan barrena.

Gaur orrialde honetara hizpide ekarritako *Hil ala bizi* hau, Stinerren *Goosebumps* (Ikarak) bildumako nobeletako bat da, ingelesez 2004an argitara emana, zeinak, gazte-nerabeei zuzendua bada ere, ez baitio itzuri egiten, inondik ere, benetako izua eragiteari.

Kontakizuna film eta telesail amerikarretan etengabeen erakusten dizkiguten Estatu Batuetako hiri ertain horietako batean dago giroturik, filme eta telesail amerikarrei esker gure auzoa bezain aruntak iruditzen zaizkigun klase ertaineko

auzo horietako batean, gure hurbi-lekoak bezain ezagunak egiten zaizkigun nerabe amerikarrak direlarik protagonistak. Horregatik agian, liburua irakurtzen hasi berria dugularik ere, zuzen-zuzenean murgilduko gara kontakizunean, giroaz eta pertsonaien tanke-raz berehala jabetuta. Eta kontakizunak ekarriko digu, jakina, ustekabeen eta izu-ikaren kate luze eta etengabea.

Argumentuak ere telesailtan agertzen diren horietako bat dirudi: neska protagonista, Joanna nerabe aberats apetatsua, bi mutil-lagunekin ari da irteten aldi berean: Dex, Joannarekin arras maitemindurik dago, aldirietako etxe xume batean bizi da, izeba zahar batekin,

eta antzerkia eta abentura ditu zaletasun nagusiak; bestalde, Shep dugu, familia aberatsekoa, eta, horrenbestez, "egokiagoa", Joannaren amaren ikuspegitik. Biei ala biei erakargarri irizten die Joannak, modu ezberdinetan, nahiz Dex harentzako xumeegi dela pentsatzen hasia den. Dex hil dela dirudienean, maitasunezko istorioa intriga eta beldurrezkoa bilakatuko da. Hortik aurrera istorioak hainbat itzuli egingen ditu, batera eta bestera, eta korapiloa azken lerroetan baino ez da askatuko.

Nobelaren erritmo hasieran lasaiagoa bizkortu egiten da pixkanaka, eta gero eta biziagoa da, hainbeste non edozein irakurlek laster sentituko baitu bere burua harra-

paturik istorioaren ingurumarietan. Agerikoak dira Stinerrek halako kontakizun biziak txirikordatzen erakutsitako trebetasuna eta ofizioa. Euskarazko bertsiotan, orpoz orpo heldu die Itziar Otegi itzultzaileak egilearen asmoei.

Istorioak, bestalde, badu ikasbide moraletik zein erretratu psikologikotik zerbait, poliki-poliki, intrigazko gorabeherekin batera, protagonistaren nortasun ez arras zintzoa azaleratuko baita, bere ezaugarri eta nabardura psikiko eta sozial guztiekin.

Laburbilduta, nobela interesgarria dute honako hau izu-istorioak gustuko dituzten gazteek, betiere haien adinekoen arazo eta kezketako batzuk tartekatuta.